

2013ko azaroa

49 egunez egun



Beasaingo udal aldizkaria

beasain

2014ko aurrekontuak herritarren iritziarekin osatu nahi ditu Udalak

2014ko aurrekontuak herritarren iritziarekin eta partaidetzarekin landu eta aberastu nahi ditu Beasaingo Udalak. Azaroan bilerak egingo ditu herriko sektore eta eragile desberdinekin.

Beasaingo Udala 2014rako aurrekontuak prestatzen hasia da dagoeneko. Baina aurrekontuen lanketa udaletik herrira atera nahi du Udalak, herritar eta eragile guztien ekarpenak zuzenean jasotzeko asmoz. «Guztion artean adostu nahi ditugu», dio Zezilia Herrador Parte Hartze zinegotziak. Horretarako *Aurrekontu parte hartzaileen bidean* deituriko parte hartze prozesua jarriko du martxan Udalak.

Honela, herriko eragileak protagonista bihurtu nahi ditu Udalak. Alde batetik, bost sektoretako eragileekin bilera bana egingo da. Bestetik, auzo guztietako bizilagunekin bilera bakarria egingo da (Astigarreta, Garin, Arriaran, Gudugarreta, Matxinbenta eta Beasainmendi) nahiz eta bileran auzo bakoitza aztertzeko taldeak egingo dira.

Dena den, sektorekako bilerekin hasi aurretik azaroaren 11n aurrekontu parte hartzaileen inguruko hitzaldia egingo dute 18:00etan Igartzan ibilbidea zehazteko. Arantza Ruiz de Larrinaga, Gipuzkoako Foru Aldundiko Parte Hartze zuzendaria izango da hizlaria. Beasaingo Udaleko aurrekontuen aurkezpen orokorra ere bertan egingo da.

Beasaingo Udalak EMUN aholkularitzaren laguntzarekin bideratuko du *Aurrekontu parte hartzaileen bidean* prozesua. Udalak aurrekontuen lanketaren «sakontasunean aurrerapausoak» eman nahi ditu: «Besteak beste, sektore bakoitzeko partiden banaketa azalduko dugu, aurrekontu orokorrarekiko sektoreen proportzioak azaldu, kanpo gastuak eta gastu korrontea eta pertsonalarena bistaratu eta sarreraren jatorria ezagutu».



Urriaren 31n Udalak eta herriko hainbat eragilek egindako aurkezpena.

•• Aurrekontuen lanketa udaletik herrira atera nahi du Udalak, herritar eta eragile guztien ekarpenak zuzenean jasotzeko asmoz ••

•• El Ayuntamiento quiere otorgar el protagonismo a la ciudadanía para elaborar el presupuesto municipal para el 2014 ••

El Ayuntamiento de Beasain ha iniciado el proceso de elaboración del Presupuesto Municipal para el 2014. Sin embargo, este año el objetivo es dar un paso más en la dirección de Presupuestos Participativos. «Queremos acordarlo entre todos» dice la concejala de Participación Zezilia Herrador.

El Ayuntamiento quiere otorgar el protagonismo a la ciudadanía y a los diferentes agentes de la localidad.

Con el citado objetivo se harán reuniones por sectores, en el Palacio Igartza, a las 18.00 horas: Urbanismo, Bienestar Social, Medioambiente, Euskara y Cultura. También se celebrará una reunión dirigida a los vecinos de los barrios de Astigarreta, Matxinbenta, Arriaran, Garin, Gudugarreta y Beasainmendi.

azaroa2013

02

beasain egunez egun
parte-hartzea

Ekimen honekin, parte hartze kultura handitu nahi du Udalak bai herritarren artean eta bai zinegotzi eta teknikarien artean ere. Horrekin batera, aurrekontu parte hartzaileekin beste hainbat helburu ere bete nahi ditu Beasaingo Udalak. Batetik, herritarrekin «pedagogia» egitea, «2013ko aurrekontuak oinarri hartuta beasaingarren diruak nondik nora datozen (sarrerak) eta zertan gastatzen diren erakutsiz». Gardentasuna erakustea ere bada helburua, «2013ko aurrekontuaren betetze mailaren berri emanez».

Aldi berean, udal sailetako ateak ireki nahi dituzte, «hainbat udal sailen aurrekontua nola gastatzen den erakutsiz, eta sailen funtzionamenduaren inguruko balorazioak egiteko aukera emanez». Horrekin guztiarekin batera, herritarren erabakimena handitu nahi da «2014rako aurrekontuen lanketan herritar orori hitza eskainiz».

Bloga

Ekimen guztia uztartzeko Udalak bloga jarri du martxan: partaidetza.beasain.org. Egitasmoaren inguruko informazioa, bileren egutegia, albisteak, bileretako aktak, argazkiak eta ekarpenak egiteko aukera ere emango du blogak.

Antes de empezar con las reuniones de los sectores, el 11 de noviembre a las 18:00 horas, Arantza Ruiz de Larrinaga, directora de participación de la Di-



•• Hirigintza, ongizate, ingurumen, eta euskara eta kulturako eragileekin, eta auzoekin bilera bana egingo da ••

•• En noviembre se realizarán 5 reuniones con los agentes de Urbanismo, Bienestar, Medioambiente, y Euskara y Cultura, y con los barrios de la zona rural ••

putación Foral de Gipuzkoa hablará sobre presupuestos participativos, y se realizará la presentación general del presupuesto del Ayuntamiento.

El objetivo final del proceso es fomentar la cultura participativa. En esta dirección se persiguen también los siguientes objetivos: hacer pedagogía con la ciudadanía, profundizar en la transparencia de las cuentas públicas, abrir las puertas de los Departamentos municipales y elaborar el presupuesto con las opiniones y prioridades marcadas entre los agentes y personas del municipio. El Ayuntamiento ha creado el blog partaidetza.beasain.org para informar a la ciudadanía. En él se podrán hacer aportaciones.

Ekintza eta sektoreko bileren egutegia / Calendario de reuniones

Bilera guztiak lgartzako jauregian izango dira 18:00etatik 20:00etara.

Todas las reuniones se celebrarán en el Palacio Igartza, de 18:00 a 20:00 horas.

Azaroak 11, astelehena

Aurrekontu parte hartzaileen inguruko hitzaldia Arantza Ruiz de Larrinaga, Foru Aldundiko parte hartze zuzendariaren eskutik eta Beasaingo aurrekontuen aurkezpena. Charla sobre presupuestos participativos a cargo de Arantza Ruiz de Larrinaga, directora de participación de la Diputación Foral, y la presentación general del presupuesto.

Azaroak 14, osteguna

Hirigintzako eragileekin bilera. / Reunión de Urbanismo.

Azaroak 18, astelehena

Ongizateko eragileekin bilera. / Reunión de Bienestar.

Azaroak 20, asteazkena

Landa eremuko auzoetako bilera. / Reunión con los barrios de la zona rural.

Azaroak 25, astelehena

Ingurumeneko sektoreko eragileekin bilera. Reunión de Medioambiente.

Azaroak 28, osteguna

Euskara eta kulturako eragileekin bilera. / Reunión de Euskara y Cultura.

Abenduak 04, asteazkena

Azken bilera: proposamenen azterketa eta ondorioak. Reunión final con análisis de propuestas y conclusiones.

Goikus Kudeaketa S.L enpresak kudeatuko du Usurbe Antzokia

Goikus S.L. enpresak irabazi du Usurbe-ko zinea eta erakusketa aretoa kudeatu ahal izateko baldintza plegua. Enpresa honen atzean zineko bi langile daude eta gainera beasaindarrak dira, Edorta Martinez eta Xabier Amenabarro. Azarotik aurrera Goikus enpresak kudeatuko du, eta Udala eta Goieniz zineklubarrekin elkarlanean ariko dira.

Azarotik aurrera ere izango da beste aldaketa bat: orain arte pelikulak 35 milimetrotako formatuan ekoizten ziren, orain, ordea, ia dena formatu digitalean egitera pasa da, horregatik zinea digitalizatu berri du Beasaingo Udalak. Azarotik aurrera 2D/3Dko pelikulak ikusgai egongo dira.

Abonoak eta sarrerak

Zinearen kudeaketa aldatu bada ere, bono sistema berriro ere egongo da martxan: 15€ren trukean 5 saiotarako. Bonoa elkarbanatu daiteke, ez da uni-

pertsonala. Bonoa 2014ko uztaila bitartean edozein saiotan erabil daiteke, 3Dko emanaldietan eta umeentzako saioetan izan ezik. Goieniz zine klube-ko saioetan ere erabil daiteke. Banaka-ko sarreraren prezioak ere jaitsi egingo dituzte urtariletik aurrera (Ikusleen egunkoa eta Goienizekoa), «krisi garaira egokituz, jendea zinemara eta kulturara erakartzea baitugu helburu».

La empresa Goikus SL gana el pliego de condiciones para gestionar el Cine

Prezioak / Precios

- » **Abonoa:** 15€ (bost saio).
- » **Sarrera:** 5€/ 3Dn 6€.
- » **Haur filmak:** 3,50€/ 3Dn 4€.
- » **Ikusleen eguna** (astelehenetan): 4,50€/ 3Dn 5€.
- » **Goieniz:** 4,50€.



Usurbe y la sala de exposiciones. Los beasaindarras Edorta Martinez y Xabier Amenabarro buenos conocedores del mundo del cine son las personas que regentan la citada empresa. La novedad que ofrece la nueva temporada es que se emitirán películas en 2D/3D.

Seguirá vigente el sistema de bonos: 5 sesiones de cine por 15 euros. El bono será transferible y se podrá ceder a terceras personas. El bono será válido en cualquier tipo de sesión excepto en las infantiles y 3D. Se podrá usar a su vez, en las sesiones del cineclub Goieniz.

Udalak datozen lau urterako euskara sustatzeko ekintza plana egingo du

Beasaingo Udalak urteak daramatza herriko eragileekin batera herrian euskara sustatzen. Aurten, gaiari osotasunean heldu eta orain arte egindakoaren diagnostikoa egiteaz gain, aurrera begira, ondorengo 4 urteetarako ekintza plana definitu nahi du. «Hori denon artean eginez gero, aberatsagoa, errealeagoa, gauzagarriagoa... hobe izango da, zalantzarik gabe», dio Ane Barandiaran euskara teknikariak. «Guk hemen egingo dugun lana Udalak oinarri hartuko du datozen 4 urtetako programak garatzeko», zehaztu du Garbiñe Zurutza Euskara zinegotziak.

Lan horretan lagundu eta prozesua gidatzen EMUN ariko da Udalarekin batera.

El Ayuntamiento de Beasain lleva tiempo en el fomento del Euskara. Este año, partiendo del diagnóstico de la labor realizada, el Ayuntamiento tiene como objetivo marcar las líneas para los



Bilerak / Reuniones

Bilerak Igartzako Jauregian egingo dira 18:30etik 20:30era, azaroaren 5ean eta 12an.

Las reuniones se celebrarán el 5 y 12 de noviembre, a las 18:30, en Igartzako.

siguientes 4 años. La empresa EMUN será la encargada de dinamizar el citado proceso.


Mugikortasunari buruzko bideoa

Uda aurretik egindako Mugikortasuna eta Bizikleta zikloaren inguruko bideoa beasain.org webgunean ikus daiteke.

En la página web del Ayuntamiento beasain.org se puede ver el video del ciclo sobre movilidad y bicicleta.

Antzizar.net webgune berria

Antzizar kiroldegiak webgune berria dauka irailaren bukaeratik: www.antzizar.net. Beasaingo Bikoa enpresak egin du webgunea, Igartzako webgunea diseinatu zuen enpresa berdinak. Kiroldegia erakustokia izateaz gain, eskaerak egiteko aukera ere ematen du webak. Twitter eta Facebook bidez ere Antzizar kiroldegiko albisteak jarraitu ahal izango dira.



05 asteartea

09:45 XIV. Fruitu eta barazki lehiaketa. Loinazko San Martin plaza azpian.

08 ostirala

18:00. Palestinari buruzko argazki erakusketaren aurkezpena, eta Palestine (Off The Record) dokumental emanaldia eta eztabaida. Usurbe antzokiko erakusketa aretoan.

19:00 Hitzaldia: Iter proiektua. Igartzako jauregia. Antolatzailea: Lemniskata.

22:00 Musika kontzertua: Iparralde eta Goierri kantari, Pier Paul Berzaitz eta Joxean Goikoetxea. Usurbe antzokian. Antolatzailea: Kantujira taldea.

09 larunbata

17:00 Argazkigintza tailerra umeentzat. Igartzako burdinolan. Antolatzaileak: Txilibutxo eta Argizpi elkarteak.

18:00 Kultura ekitaldia. Usurbe antzokian. Antolatzailea: Asmube.

10 igandea

08:00 Mendi irteera: Zegamako goralakura-Zerain. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.

12 asteartea

17:30 Ipuin kontaketa: 'Baga Yaga'. Kontalaria: Eneritz Artetxe. Udall Bibliotekan.

18:00 Hitzaldia: 'Erditze fisiologikoa' eta

'Gure erditzearen jabe. Erditze kontzientearen garrantzia: informatuta egotea eta gure egoeraz jabetzea' liburuaren aurkezpena. Hizlariak: Ixabel Aleman emagina eta Estitxu Fernandez. Igartzako jauregia.

15 ostirala

19:00 Hitzaldia: 'La ciencia con humor'. Hizlaria: Antonio Fraguas 'Forges'. Igartzako jauregia. Antolatzailea: Lemniskata zientzia elkartea.

16 larunbata

20:30 Gazte abesbatzen topaketa Andre Mari Zerutuaren parrokian. Loinatz Musika Eskolako Abesbatza, La Salleko Izan-Izar abesbatza, Orkatz abesbatza eta Txintxarri Txiki abesbatza.

17 igandea

19:00 Xabier Anduaga tenorea eta Gerardo Rifon organujolea. Igartzan.

21 osteguna

17:30 Ipuin kontaketa: 'Naturaz mintzo diren ipuinak'. Kontalaria: Eñaut Gorbea. Udall Bibliotekan.

18:00 Musikean. Musika eskolako Banda eta Txistulariak. Loinazko San Martin plazan eta Gernika pasealekuko frontoian.

19:00 Ikasle kontzertua. Igartzako jauregia. Antolatzailea: Musika Eskola.

22 ostirala

19:00 Hitzaldia: 'Neurologia: El funcionamiento del cerebro'. Hizlaria: Gurutz Linazasoro. Igartzako jauregia. Antolatzailea: Lemniskata.

Zinea

Tomboy (Goieniz): Azaroak 7, osteguna: 21:00.

Violeta se fue a los cielos (Goieniz): Azaroak 14, osteguna: 21:00.

Weekend (Goieniz): Azaroak 28, osteguna: 21:00.

22:15 Antzerki amateur: Urrup antzerki taldearen 'Seis personajes en busca de autor'. Usurbe antzokian.

24 igandea

08:00 Mendi irteera: Ikaztegieta-Baliarrain-Beasain. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.

25 astelehena

15:30 Berdintasun Foroa Udaletxeko Batzar Aretoan.

19:00 Emakumeen aurkako indarkeriaren Nazioarteko Egunaren ekitaldia. Antolatzailea: Asmube. Zubimuzu plazan.

29 ostirala

19:00 Hitzaldia: 'Amatasuna eta erditzea historiaurretik egunera'. Hizlaria: Idoia Goikoetxea. Igartzako jauregia. Antolatzailea: Lemniskata zientzia elkartea.

Beasaingo VI. mendi astea

Ikusentzunezkoak Udaletxeko Batzar Aretoan izango dira, 19:30ean. Antolatzailea: Arrastaka Mendi Taldea.

Azaroak 11: Arrastaka Mendi Taldeak urtean zehar egindako ekintzak.

Azaroak 12: Aizkorri Mendizale Elkartek urtean zehar egindako ekintzak.

Azaroak 13: Andoni Ormazabalaren 'Elurretako lehoiabarren bila'.

Azaroak 14: Mikel Saez de Urabainen 'Ala dag, mendi gorriak'.

Azaroak 15: Alberto Zeberioaren 'Mendi ertainetan larrialdiak'.

Azaroak 16: Eskalada praktikak, Antzizar kiroldegiko rokodromoan.

Erakusketak

Azaroaren 10era arte: 1. Amagandiko edoskitzearen argazki lehiaketako erakusketa. Igartzako jauregia.

Azaroaren 8tik 17ra: Argazki erakusketa: Giza eskubideak Palestinan eta Golanen. Usurbe antzokiko erakusketa aretoan. Antolatzailea: Mundubat.

Azaroaren 19tik 26ra: 'Emakume berriak matematikan' erakusketa, Usurbe antzokiko erakusketa aretoan. Antolatzailea: Lemniskata zientzia elkartea.

Azaroaren 29tik abenduaren 8ra: Argazki erakusketa: 'Beasaingo Hiria' irabazlearen argazkiak. Usurbe antzokiko erakusketa aretoan.

beasain egunez egun

Argitaratzailea: Beasaingo Udala
Helbidea: Loinazko San Martin plaza
Posta elektronikoa: udala@beasain.net



Telefona: 943 02 80 50
Webgunea: www.beasain.org
Diseinua: Bidera Zerbitzuak